



Arartekoaren Ebazpena, 2011ko maiatzaren 26koa. Honen bitartez, Bizkaiko Foru Aldundiari atxikitako langile baten nominan hartzekoen kenkaria aplikatu izanari buruzko kexa espedientea amaitzen da.

Aurrekariak

1. Erakunde honetan Bizkaiko Foru Aldundiaren Suhiltzaile Parkeari atxikitako langile batek sustatutako kexa jaso genuen. Bertan, desadostasuna adierazi zigun Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Sailaren abuztuaren 18ko 5498/08 Foru Aginduaren bitartez egindako ordainsarien deskontu automatikoa zela-eta. Deskontu hori 2008ko ekaineko ordu kontrolean 23 ordu eta 43 minutuko akatsa zenbatu izan ondoren aplikatu zen.
2. Interesdunak Aginduaren aurkako berraztertze errekurtsoa jarri zuen. Bertan, hitzez hitz, zera adierazi zuen: *"El problema es que a la salida de la guardia o no he fichado o no ha funcionado como debiera. Yo no me he enterado de este problema hasta ayer, por lo que no he podido hacer una reclamación para subsanarlo."*
3. Errekurtsoa irailaren 5eko 5738/08 Foru Aginduaren bitartez ebatzi zen, eta hori egiteko oinarri hartutako txosten-proposamenean zera jaso zen:

"(...) 2008ko ekainaren 14ko akatsezko 24 orduak eta 20 minutuak, bere alde ekainean sortutako neurriz gaineko ordu kopuruarekin batuta, akatsezko 23 ordu eta 43 minutura iristen dira (...).

(...) foru langile bakoitzaren erantzukizuna da Sail bakoitzaren Zerbitzu Orokorren bitartez izapidetzea, horretarako jarri den epean (25 egun natural, gertakaria gertatzen den hilabetea amaitzen denetik hasita), egin ez diren fitxatzeak justifikatzeko parteak (...).

(...) Esku artean dugun kasuan, 25 egun naturaleko epearen barruan gaude noski, egin gabeko fitxatzea gertatu zen hilabetea amaitu zenetik. Bertan, interesdunak egutegia gauzatzeko gertatutako irregulartasuna justifikatu ahal izan du, eta, hain zuzen ere, ikus daitekeen moduan, ez du jarduera formalik egin fitxatze egin gabe hori justifikatzeko. Ondorioz, jardun falta horrek



izapide eskubidea galtzea eta hartzekoen kenkari proportzionala aplikatzea ekarri du, hain zuzen ere Antolamendu Zerbitzuak egiaztatu duenean 23 ordu eta 43 minutuko ordu akats bat egon zela ekainean (...)”.

4. Langileak, kexa adierazi zuen unean, zera alegatu eta egiaztatu zuen: lehenik eta behin, 2008ko ekainaren 14an normaltasunez lan egin zuela eta, bigarrenik, bere fitxatzean arazorik egon zenik ez zuela jakin 2008ko irailaren hasierara arte. Data horretan lanean hasi zen berriro ere oporraldiez gozatu ondoren eta data horretan jaso zuen deskontua aplikaturik zuen nomina.

Arrazoi hori dela eta, derrigorrezko justifikazio hori egiteko dagoen hogeita bost eguneko epearen eragin falta azpimarratu zuen, izan ere, gertatutakoa idatziz jakinarazi izan baliote, hori ez zitzaiokeen garaiz iritsi izango eta, beraz, ezingo izango zitzaiokeen foru erakundearen Intranetean kokatutako aplikazio informatiko batera iristea orduen kontrolaren gaineko inguruabarrak justifikatze aldera.

Behin kexa aztertuta, foru erakundearen laguntza eskatu genuen. Kexaren arrazoiak helarazi genizkion eta gaiaren gaineko iritzia ematea eskatu genion.

Gure eskaerari erantzunez, erakunde honek txosten bat jaso zuen eta bertatik hurrengo paragrafoak azpimarratu nahi ditugu:

“2008ko ekainaren 14an,(...) 7:46 etab fitxatu zuen lanera sartzeko, hala baitago gordeta ordu kontrolean. Egun horretako suhiltzaileen irteera fitxaketa ez dago jasota. Ekainean bere alde zeukan gehiegizko orduen ondorioz, hilabete hartan pilatu zitzaion ordainsaririk atxikipen proportzionala egin zitzaion, eta, azkenean, 23 ordu eta 43 minutuko okerra kendu zen.

23 ordu eta 43 minutu ez egotea lanetik irteteko fitxaketa ez egitearen ondorioa da. Horren harira, egutegia betetzean sortzen diren irregulartasunak justifikazio espedientea izapidetuta justifikatu behar dira, eta hori ezarritako epeen barruan egin behar da. Espedientearekin batera kasu bakoitzean eskatzen den dokumentazioa gehituko da. Ez dira onartuko egutegia betetzean sortu diren irregulartasunen justifikazioak onartuko, irregulartasuna sortu zen hilabetea bukatu zenetik hogeita bost (25) egun natural baino gehiago igarotzen badira.

Langilearen ardura da ordutegiaren araudia ezagutzea, baina haren ordutegia kontrolatzea ere. Horri buruzko informazio guztiak berezko argitaratze eta hedatze baimenak ditu, eta Bizkaiko Foru Aldundiko langile guztiak dute horren berri.”





5. Erantzun hori ikusita, egokia iruditu zitzaigun Bizkaiko Foru Aldundiarekiko komunikazio bideak irekita mantentzea eta, berriro ere, laguntza eskatu genion interesdunak emandako dokumentazioaren eta Aldundiak berak erantzun gisara emandako agirien azterketaren ondotik gure iritzia jakinaraziz. Iritzi horren arabera, ondorioztatu genuen administrazioak ez zuela zalantzan jartzen kexaren adierazlea lanera joan ez zenik 2008ko ekainaren 14an, eta beraz ez zela alderik egon langilearen egun honetarako egutegiko arauzko lanaldiaren eta benetan egin zuenaren artean. Beraz, gure ustez, laneko betebeharrak bat bete ez izanaren baldintza ez zen azaldu, hain zuzen ere soldatako hartzeak murriztea oinarritzeko izateko kasu gisa ordenamendu juridikoan ezarri bezala.

Inguruabar hau ikusita, administrazioari iradoki egin genion ordenamendu juridikoak eskura jartzen dituen bideak erabil zitzala eskubideak kalteturik edukitako pertsonaren eskubideak berrezartzeko. Horien artean egongo litzateke, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak aurreikusi bezala, karga egintzak ofizioz bertan behera uzteko aukera.

6. Administrazioak egindako azken hausnarketak, berriro ere, administrazio horrek langileen orduen kontrol eraginkorra egiteko ezarrita duen prozeduraren ingurukoak dira -Ordutegi Kontrola Betetzeko Araudia-, eta baita langile bakoitzak hura betetzeko duen betebeharraren ingurukoa ere. Halaber, berriro ere azpimarratu egiten da langileak ez zuela araudi horrek ezarritako moduan justifikatu 2008ko ekainaren 14ko fitxatze falta, eta, arrazoi hori dela-eta, kexaren xede den hartzearen kenkaria aplikatu zitzaiola.

Interesdunari bere eskubideak berrezartzeko iradokizunari dagokionez, hain zuzen ere kexaren jatorria den ebazpena ofizioz indargabetzearen bitartez, zera jakinarazi digute: *“jarduera horrek talka egingo luke foru erakundearen errealitatearekin, izan ere, gaiari buruzko araudi argia egoteaz gain, errekurtsioak aurkezteko aukerekin eta abar, eskura dagoen sistemak aukera nahikoak ematen ditu inor ez geratzeko babesgabetasun egoeran”*.

Azkenik, horrelako gaien inguruan, jakinarazi digute *“bere garaian hartu zirela jada neurri osagarriak horrelako desegokitzapenak eta orduen gaineko kontrolean egon zitezkeen ondorioak saihesten are gehiago laguntzeko”*.





Gogoetak

1. Eztabaidatik kanpo dagoen gai bat eta abiaburutzat duguna herri administrazioak duen eskumena da nominan deskontuak aplikatzeko, bere zerbitzuplean pertsona batek egin ez duen lanegunaren proportzioaren arabera.

Aukera honek herri administrazioen zerbitzura dauden langileen araubidearen oinarritzko arauaren izaera du, hain zuzen ere Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuan sartzeak finkatu bezala -30.1 artikulua: *"Kasuan kasuko diziplina zehapenaren kaltetan izan gabe, bete gabeko lanaldiak hartzekoen kenkari proportzionala aplikatzea eragingo du, eta horrek ez du zehapen izaera edukiko".*

Gure Autonomia Erkidegoaren baitan, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legeak aukera hori jasotzen du 81.4 artikuluan. Bertan, hain zuzen ere, zera adierazten da: *"Justifikazioa egon denean salbu, lanaren arauzko ekitaldiaren eta funtzionarioak benetan bete duenaren arteko aldeak, hartzekoen dagokien kenketa ekarriko du, hori gainera, hala badagokio, horrek sor dezakeen diziplina-mailako erantzukizunaren kaltetan izan gabe."*

Aurreikuspen hauen esparruan, administrazioak, bere burua antolatzeko eskumena baliatuz, kasuan kasuko araudia egiten du ordu kontrola egiteko. Gauzak horrela, bere erantzukizuna da araudi hori gauzatzea eta hura praktikan jartzea, modu horretara kasuan kasuko ondorioak aplikatzeko langile batek ordutegia bete ez duela egiaztaturik geldituz gero.

2. Administrazioak emandako informaziotik egiaztatu dugu Bizkaiko Foru Aldundiak, 2008. urtean, gai hori arautzeko araudia zuela. Bertatik, Aldundiak kexaren xede den jarduera oinarritzeko erabilitako idatz-zatiak jasoko ditugu jarraian:

"2.1.-ORDUTEGIAREN KONTROLA BETETZEKO ARAUTEGIA

Beste alde batetik, foru enplegatu bakoitzaren erantzukizuna da ezarrita dauden epeen barruan egutegiaren betearazpenean gertatu diren irregulartasunen bidezkoketarako espedienteak tramitatzea, kasu jakin bakoitzean eskatzen den dokumentazioa erantsiz.



2.1.3.- FITXAKETA.-

2.1.3.1.-Etengabeko lanaldiko pertsonala.-

Egunean bi fitxaketa egin behar ditu (sarrera-irteera), egutegiko modalitate horretarako ezarri diren malgutasun-mugei atxikita.

Pertsonal horrek ez baditu fitxaketak egiten ez betetzea gertatzen da eta hori ongitzeko bide bakarra bidezkoketa espediente egokiaren tramitazioa da.

2.1.8.- BIDEZKOKETA

Egutegiaren betearazpenean gertatu diren gorabeherak bidezkoketa espedientearen tramitazio egokiaren bidez bidezkotuko dira, ezarrita dauden epeetan, alegia. Bidezkoketa horri kasu bakoitzean egokia izango den dokumentazioa erantsiko zaio.

Ez da egutegiaren betearazpenean gertatutako irregulartasunei lotutako inolako bidezkoketarik onartuko gorabehera hori gertatu den hilaren hurrengoaren egutegiko hogeita bost (25) egun igaro ostean. Horrek esan nahi du kasu honetan aztergai den deskontuari buruzko Foru Aginduaren arabera nominan egin ziren deskontuak ez direla itzuliko."

3. Araudi hori aplikatuta eta aintzat hartuta langileak ez zuela ezarritako prozedurari jarraiki jardun, hau da, ez zuela 2008ko ekainaren 14ko eguneko irteera fitxatu ez izana justifikatu xede horretarako ezarritako epean, administrazioak kasuan kasuko hartzeak kendu zizkion.

Foru erakundeak berak zera aitortzen du: "Aztergai den hil horretako ordutegiaren kontrola egin zenean, inguruabarra gertatu eta hilabete eta erdira, Antolaketa Zerbitzuak ez zuela ezagutzen interesatua lanaldi osoan bertan egon zen ala ez, interesatuak lan egiten duen Zerbitzuak ez zuelako horrelakorik jakinarazi. Informazio hori deskontua egin ostean ezagutu zen."

4. Foru erakundeak bezala milaka langile biltzen dituzten erakundeetan lanean ari diren langileen ordu kontrola egiteak dakartzan zailtasunez jabetzen gara, eta baita lan hori errazteko arau jakin batzuk ezartzeko beharraz ere. Ikuspegi



horretatik ulertzen dugu aplikatu beharreko araudiak epe bat jartzea langileek beren fitxatzeetan egondako irregulartasunak ebazteko, epe hori igarota administrazioak uler dezan ordutegia bete ez dela eta kasuan kasuko deskontua egin dezan.

Gure ustez, uste horren izenean, deskontua balioduna eta eraginkorra da, eta horrekin ados ez dagoen interesdunari dagokio, kasu honetan langileari, hori aurkaratzea, horretarako administrazioak xede honetarako eskatzen dizkion agiriak aurkeztuz.

5. Esku artean dugun kasuan, kexaren adierazleak nominatik hartzekoak kendu izana aurkaratu zuen horren berri izan zuen une berean. Horretarako, berraztertze errekurtsoa jarri zuen. Aitzitik, espedientearen ageri den dokumentaziotik ondorioztatzen dugu une horretan ere ez zuela justifikatu 2008ko ekainaren 14ko irteeraren fitxatzea falta izatea, hau da, ez zuen ordutegia bete ez izanaren ustea suntsitu eta hori izan zen administrazioak egindako deskontua ez zuzentzeko eduki zuen arrazoia.

Antolamenduaren ikuspegitik kexaren xede den jardura ulertzen badugu ere, ezin dugu alde batera utzi interesdunak lanpostuan egon zela egiaztatu zuela ondoren eta, horregatik, Bizkaiko Foru Aldundiaren ordutegi kontrolaren araudiak soldatako hartzekoen kenkaria etorri dela, kasu honetan ondorio juridiko hori egoteko ordenamendu juridikoak jasotzen duen egoera gertatu izan gabe, hau da, langileak ezarritako laneguna urratu izan gabe.

Gure argudioak indartzeko, jarraian Bilboko 1. zk.ko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak 2009ko irailaren 29an emandako 268/2009 epaian adierazitakoa transkribatuko dugu. Bertan, hartzekoen kenkariari aplikatu beharreko araudia azaldu eta gero, zuzenbideko 5. oinarrian zera finkatzen da:

“...azaldutako arau guztiek, aurkaratutako ebazpena oinarritzeko balio dutenak besterik ez direnak, ordainsarien deskontua aurreikusten dute halabeharrez lanaldia ematea falta izateari lotutako ondorio modura edo, bestela, falta hori justifikatu ez izanari lotutako ondorio modura, baina inoiz ez fitxatzeko betebeharra ez betetzearen ondorio modura...”

Aurrekoa ikusita, erakunde honek ondorio hauek eman ditu:





Ondorioak

1. Bizkaiko Foru Aldundiak, lanaldia benetan egiten zela eta bertan lanean ari diren langileen ordutegiak kontrolatzeko 2008an eskuratutako Ordutegi Kontrola Betetzeko Araudian ezarritakoaren babesean, ongi egin zuen deskontua kexaren sustatzailearen nominan, izan ere, hark ez zuen justifikatu araudi horretan ezarritako epean lanetik irteteko fitxatzea egin izana 2008ko ekainaren 14an.
2. Jarduera honek, berrikuspenaren xede izan ez dena, soldatako hartzekoen kenkaria ekarri du langilearen nominan, horretarako funtzio publikoaren araudiak beharrezko bezala ezartzen duen gertaera agertu gabe, hau da, laneko arauzko lanaldiaren eta benetan langileak egindakoaren artean alderik egon gabe egun horretan.

